

JOEY-COCO Gasteizko Disco Barrari eman diote aurten etxe-barruko COAVN arkitektura saria. Hego Euskal Herriko Arkitektoen Kolegioak ematen duen sari hau, azaltzen duen diseinu dotoreagatik eta espazioari ematen dion batasunagatik jaso du Jabier Mozas eta Roberto Ertzillaren lan honek. Hirigintza saria, Eduardo de Miguel, Ramon Garitano, Ana Arriazu eta Luis Tenak lortu dute, Iruñeko Arrosadia auzoa txukuntzeko egin duten proiektuagatik. Kultura Arkitektonikoaren alorrean Jabier Zenikazelaia eta Iñigo Saloña izan dira sarituak, Euskal Herriko Arkitektura Neoklasikoari buruz egindako liburua dela medio, eta Eraikuntza mailan Eugenio Aginaga eta Alfonso Azketa. Berreraiketa saria, Luis Alberdi eta Roberto Urtasunentzat izan da.

HILDAKOAK

BIZKAIA

BILBO

Rafael Rubio Ponce, 78 urte.
Ana Eguzkizaga Aurrekoetxea, 87 urte.
Trinidad Paris Garcia, 75 urte.
Andresa Bilbao Bilbao, 88 urte.
Maria Teresa Sanz Artaraz, 85 urte.
Alejandra Mezo Begoña, 80 urte.

ALGORTA

Angel Sampelayo Urruela, 92 urte.

AREATZA

J. Ramon Orue Artetxe, 83 urte.

BARAKALDO

Romana Juaristi Bideguren, 92 urte.

BERRIZ

Maxi Diez Barrio, 48 urte.

ERANDIO

Felisa Iturregi Goikoetxea, 77 urte.

JATABE

Genaro Agirre Goienaga, 84 urte.

LOIU

Angel Egurbide Erkoreka, 79 urte.

MARURI

Jenaro Agirre Goienaga, 84 ure.

MUSKIZ

Manuel Gutierrez Mendez, 85 urte.

ONDARROA

Anita Bedialauneta Beitia, 84 urte.

PLENTZIA

Julita Perez Baskaran, 85 urte.

PORTUGALETE

Francisco Ramos Madrid, 73 urte.
Filomena Setien San Martin, 88 urte.

ZEBERIO

Maria Juana Ibarrondo Iza, 84 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Rosario Ibazeta Azarloza, 92 urte.
Elisa Lamenca Pes.
Cecilio Gomez Blanco, 32 urte.
Kontxi Bereziartua San Sebastian, 51 urte.
Petra Remira Martinez, 89 urte.
Ana Zabala Retenaga, 77 urte.
Rafael Gonzalez Hernandez, 78 urte.

BEASAIN

Ildefonso Otermin Goikoetxea, 66 urte.

EIBAR

Jose Luis Egaña Ojanguren, 61 urte.
Alfonso Zabala Arregi, 65 urte.

HERNANI

Maria Pilar Agirre Pagadizabal, 48 urte.

IRUN

Jose Antonio Mitxelena Rekarte, 78 urte.
Daniel Miguel Rojas, 53 urte.

SORALUZE

Marcos Legaristi Jauregi, 79 urte.

TOLOSA

Maria Juana Arnaiz Loinaz, 53 urte.

ARABA

GASTEIZ

Alberto Martinez de Aragon Remirez de Esparza, 23 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Maria Angeles Andueza Aizkorbe, 79 urte.
Jose Antonio Maia Fernandino, 53 urte.
Jose Figueroa Vazquez, 75 urte.

ATARRABIA

David Morillo Nuñez, hilebete t'erdi.

AZAGRA

Trinidad Ansai Sanz.

BARASOAIN

Damian Iturria Zaratiegi, 63 urte.

FALCES

Celso Marques Agreda, 68 urte.

MURILLO EL FRUTO

Cristina Brun Casajus, 85 urte.

SAN MARTIN UNX

Antonia Muruzabal Lerga, 80 urte.

ZANGOZA

Josefina Rebole Vigilia, 77 urte.

ZIA

Jose Maria Magirena Igoa, 85 urte.

LAPURDI

ANGELU

Helene Laguillon Beurois, 67 urte.

DONIBANE LOHIZUNE

Jean Pierre Solorzano, 83 urte.

HENDAIA

Manuela Bastarrika Benito, 73 urte.
Louis Jouve, 80 urte.

KANBO

Jean Baptiste Duhalde, 72 urte.

MIARRITZE

Noel Cazalis.

ZIBURU

Angele Albistur Elizaso, 90 urte.

ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 45 59 57 4etatik 7etara: (943) 37 15 45

Trafiko Zuzendaritzak premiazko bidea erabiliz kobratzen ditu isun gehienak

Arau-hausteen arrazoi nagusiak abiadura eta aparkaleku ez egokiak dira

Trafiko Zuzendaritzaren isunen erdiak premiazko bidea hartzen dute, hau da, Haziendak kobratzen ditu. % 28k aldiz, prozedura normala jarraitzen duela adierazi du Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza Orokorrak.

LARRAITZ GARMENDIA / **GASTEIZ**

«Salaketen % 21 bertan behera uzten da, honek suposatzen du kobratzen diren isun guztien % 64k premiazko bidea daramatela» adierazi du Trafiko Zuzendaria den Jesus Elgezabalek. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak 1990. urtean 208.425 salaketa izan zituen, eta honek 2.238 milioitako (112 miloi libera) diru sarrerak ekarri ditu.

Salaketa hauetan Ertzaintzak jarritako isunez gain, herrietako ertzainak egindakoak agertzen dira. Herri txikietako isunak Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak tramitatzen ditu. Iaz ezarritako isunen batezbestekoa 10.741 pezetakoa da (500 libera inguru) eta Elgezabalek dio «aurten 15 edo 16.000 pezetakoa (800 liberatakoa)» izango dela.

Trafiko salaketen % 21 bertan behera gelditzen da. CARLOS VILLAGRAN

Arau-hauste hauen arrazoia abiadura da. Ertzaintzak 65.000 salaketa jaso ditu, hau da, salaketen % 31. Abiaduragatik gertatu diren istripuen portzentaia handiagoa da Araban, «errepideen estrukturagatik, trafiko eskasa eta bihurgune gabekoa delako» Elgezabalek esan duenez.

Elgezabalek argi utzi du istripu arrisku handiena «euririk egin gabe zenbait egun pasa direnean eta euri tanta batzuk bota dituenean» gertatzen dela. Salaketen bigarren arrazoia aparkaleku ez egokietan kotxea gelditzea da. Honelako kasuak % 21 dira, herrietako udaltzaingoak tramitatzen dituenak.

Soldadutza

Kontzientzi Eragozpenaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar antimilitaristek

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

Bizkaia eta Nafarroan, soldadutza, intsumisioa eta emakumeak armadan izan beharko luketen partehartzeari buruzko erreferenduma egingo da ikastetxeetan. Horrez gainera, batzarrak eta manifestazioak izango dira, Kontzientzi Eragozpenaren Nazioarteko Eguna ospatzeko bihar talde antimilitaristek burutuko dituzten ekintza batzuk. Gasteizko Kakitzateko kideek atzo gogoratu zuten, hamar urte dituen «Nazioarteko Egun honen ingurukoak, hau da, hamaika intsumiso gartzelan, hauetako bat gose greban edota aurki euskal gazte bati egingo dioten gerra-kontseilua». Beraz, biharkoa «borroka eguna» izango da eta Gasteizko manifestazioa eguerdiko 12etan hasiko da.

Espetxeraturiko intsumiso ororen askatasuna nahiz gerra-kontseiluei ahalik eta ezezko jarrerarik tinkoena agertzea da asmoa, Kakitzaten ustez. Gainera, joan zen asteburuan Hego Euskal Herritik Gomez Ulla ospitaleraino «martxa arrakastatsua» egin zuten. «Zazpi autobus atera ginen eta ibilbidean zehar Poliziaren oztopoak ugari izan arren, bostehun lagun bildu ginen hamasei egun gose greba eman dituen Angel Carrascori elkartasuna azaltzeko xedez». Bestalde, Cartagena eta Zaragozan ere motibo zihori dela eta mobilizazioak izan ziren.

Gasteizko Kakitzatekoek «laster batean hirian sortuko den Emakumeen Asanblada Antimilitarista» aipatu zuten. KEM, Kakitzat eta Gasteizko erakunde feministetako partaideek osatuta izango da eta Indar Armatuen Astea probetxatuko dute ekintzaren bat egiteko. Azkenik, Jose Pizarro UAko hautagaiaren hitzak ulertzen ez zituztela esan zuten. Politikariak «elkartasun eza» leporatu zien intsumisoei iragan asteburuan.

KARLOS ETXENIKE ETXEBERRIA
Jna.
(Billabonako Alkate-Ohia)

BILLABONAKO UDALAK
Oharra:
Gorpua Udal Batzar Aretoan egongo da.

Billabonan, 1991ko maiatzaren 13an



M. PILAR AGIRRE PAGADIZABAL
(sukaldaria)

"Ezagutu zaitugunon bihotzetan jarraituko duzu. Ez zaitugu ahaztuko"

Langile Ikastolako guraso, langile eta haurrak

Hernanin, 1991ko maitzak 12